

izendatzea: M^a del Carmen Errasti Murguiondo andrea (Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua).

Hirugarren.- Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den eguna gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 5a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

Foru Aginduak

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

7.801

1.068/2006 FORU AGINDUA, abenduaren 1koa. Honen bidez, Laguardiako "Iparraldeko bizitegiarako sektore berria" 11. sektorearen plan partzialaren espediente behin betiko onetsi da.

AURREKARIAK

Lehena.- 2006ko urtarrilaren 12an Laguardiako Udalak bertako 11. sektorearen plan partzialari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hilabetez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: Arabako Lurralde Historikoaren 2006ko otsailaren 10ko ALDIZKARI OFIZIALEAN (17 zenbakia) eta 2006ko urtarrilaren 31ko "El Correo" egunkarian argitaratuz.

Bigarrena.- Jendaurreko epean 11. sektoreko jabe elkarteak alegazio bat aurkeztu zuen; berori aztertuta, ezetsi egin zen. Beraz, udalak, 2006ko maiatzaren 18ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, han behin betiko onespina eman ziezaioten. Espediente horri 2006ko uztailaren 12an eman zioten sarrera foru aldundian.

2006ko uztailaren 20an eskatu zitzaion dokumentazioa udalari, eta 2006ko azaroaren 8an eman zen.

ONARRIAK

Lehenengoa.- Pan partzial honek Laguardiako ordezkari arauen 11. sektorea zehatz-mehatz arautzen du; izan ere, arauok lurzorua intentsitate txikiko bizitegiarako lurzorua urbanizagarri sailkatu eta izendatzen dute.

Bigarrena.- Dokumentazio teknikoa aztertuta, edukiera formal eta materialeko zehaztapenak, planari hasierako onarpena eman zitzaionean indarrean zeuden hirigintza legeriak eta udal planeamenduen ordezkari arauak ezarritakoak, betetzen direla egiaztatzen da.

Hirugarrena.- Goragokoa gorabehera, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak txostena eman du aditzera, eta berorren lehenengo larroaldea ondokoa da:

"Errepideen foru sarearen gaineko espedientearen garapenean aldatzen den kontu bakarra ondorengoa dugu: A-124 errepidearekiko lotura berriaren -Laguardiako azken hiri zatia- definizioa. Errepideen Jarraibideko 3.1-I.C. "Trazadura" arauan definitutako abiadura aldatzeko erriak ei daude lotura horretan, baina ezin izan da zeharo aztertuta ea erriok bazterbiderik duten eta oinezkoentzako babesguneei esker, egungo errepidearen bazterbideak errespetatzen diren."

Hori dela eta, goragokoa bermatzeko, urbanizazio proiektuak ondoko biak hartu beharko lituzke kontuan:

a) Eraikuntza proiektuan, lotura horren definizioa ondokoak bil-tzen dira: erreion eta A-124 errepidearen bidebazterrek berdinak izan behar dira, beraz, errepide horretako bidebazterren zabalera (1,50 m) errespetatu behar dute oinezkoentzako guneek; eta lotura horren adarrei albit bira eta sekzio erradiorik handiena -zeharkakoa eta zolakak- eman behar zaie, iragar daitezkeen mugimenduak egiteko eta trafikoa behar den moduan hartzeko.

b) Drainatze, seinale eta baliza kontuei dagozkien alderdiak eta proiektatutako konponbidea osorik definitzeko beharrezkoak.

del Registro de Entidades) a doña M^a del Carmen Errasti Murguiondo (Jefe del Servicio de Secretaría Técnica de Función Pública).

Tercero.- El presente Acuerdo entrará en vigor el día de su aprobación sin perjuicio de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de diciembre de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

7.801

ORDEN FORAL 1.068/2006, de 1 de diciembre de aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector 11 de Laguardia "Nuevo Sector Residencial Norte".

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 12 de enero de 2006 el Ayuntamiento de Laguardia acordó aprobar inicialmente el expediente de Plan Parcial del Sector 11 de Laguardia, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 17, de 10 de febrero de 2006 y en el periódico El Correo, de 31 de enero de 2006.

Segundo.- Durante el periodo de información pública fue presentada una alegación por la Asociación de Propietarios del Sector 11, tras ser informada y desestimada el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 18 de mayo de 2006, a su aprobación provisional y remitió el expediente a la Diputación Foral para su aprobación definitiva el día 12 de julio de 2006.

En fecha 20 de julio 2006 se solicitó documentación al Ayuntamiento que fue entregada el 8 de noviembre de 2006.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial ordena pormenorizadamente el Sector 11 de las Normas Subsidiarias de Laguardia, clasificado y calificado por éstas como suelo urbanizable sectorizado residencial de baja densidad.

Segundo.- Analizada la documentación técnica aportada se comprueba que cumple las determinaciones, de contenido formal y material, establecidas por la legislación urbanística, vigente en el momento de la aprobación inicial del Plan, y las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.

Tercero.- No obstante lo anterior, la Dirección de Obras Públicas y Transportes ha emitido un informe cuyo primer párrafo es del siguiente tenor:

"El único aspecto en el que se produce afección del desarrollo contemplado en el citado expediente sobre las carreteras de la Red Foral, lo constituye la definición de una nueva conexión con la carretera A-124, al final del tramo urbano de la misma a su paso por la localidad de Laguardia. Dicha conexión parece contar con las cuñas de cambio de velocidad definidas en la Instrucción de Carreteras, Norma 3.1.I.C. "Trazado", aunque no se ha podido apreciar completamente si las mismas cuentan con arcenes y si con las isletas previstas se respeta el arcén de la carretera existente."

Por ello, para garantizar lo anterior propone que el proyecto de urbanización contemple estas dos cuestiones:

a) La definición, a nivel de proyecto de construcción, de la refrenda intersección, dotando a las cuñas previstas de arcenes iguales a los de la carretera A-124, respetando con las isletas el arcén de 1,50 m de anchura de dicha carretera, y dotando a los ramales de dicha intersección de los mayores radios de giro posibles y de sección, tanto transversal como de firmes, suficiente para los movimientos y tráfico esperados.

b) Todos los aspectos relativos al drenaje, señalización y balizamiento, y todos aquellos necesarios para la completa definición de la solución proyectada.

Azkenik, gogoan hartu behar da Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak onartu behar duela urbanizazio proiektua.

Laugarrena.- Era berean, espedienteaz izapidetu egin da hiri-gintzako legeetan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.- "11. sektorearen jabe sustatzaileen elkarteak" aurkeztutako alegazioaren harira, udalak hartutako erabakia berretsi behar da.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea "11. sektorearen jabe sustatzaileen elkarteak" sustatutako eta Laguardiako Udalak tramitatutako Laguardiako "Iparraldeko bizitegiarako sektore berria" 11. sektorearen plan partziala, eta ondoko aldaketa egin:

Hirigintza arauen urbanizazio proiektuaren 2. atalaren IV. kapitulura ondokoak biltzea urbanizazio proiektuan ager daitezen:

a) Eraikuntza proiektuan, lotura horren definiziora ondokoak biltzen dira: erreion eta A-124 errepidearen bidebakterrak berdinak izan behar dira, beraz, errepide horretako bidebakterren zabalera (1,50 m) errespetatu behar dute oinezkoentzako guneek; eta lotura horren adarrei albait bira eta sekzio erradiorik handiena –zeharkakoa eta zolakakoa– eman behar zaie, iragar daitezkeen mugimenduak egiteko eta trafikoa behar den moduan hartzeko.

b) Dranaia, seinale eta baliza kontuei dagozkien alderdiak eta proiektatutako konponbidea osorik definitzeko beharrezkoak.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedienteaz zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Laugarren.- Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako aretoan. Horretarako bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, berraztertze errekurtsioa, ebazpena eman zuen organoari. Horretarako, hilabete izango da egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiak jakinaren gainean egon daitezen argitaratu da iragarpen hau.

Hirigintza eta Ingurumen Sailaren Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

Finalmente, a modo de recordatorio, advierte que el proyecto de urbanización deberá ser aprobado por el Departamento de Obras Públicas y Transportes.

Cuarto.- Además, el expediente ha sido tramitado según lo establecido en la mencionada legislación urbanística.

Quinto.- En relación a la alegación presentada por la "Asociación de Propietarios Promotores del Sector 11" procede ratificar la decisión adoptada por el Ayuntamiento.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del Sector 11 de Laguardia "Nuevo Sector Residencial Norte", promovido por "Asociación de Propietarios del Sector 11 de Laguardia" y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con la siguiente modificación:

Incluir en el Capítulo IV, Sección 2ª "Del Proyecto de Urbanización", de las Normas Urbanísticas la exigencia de contemplar en el Proyecto de Urbanización:

a) La definición, a nivel de proyecto de construcción, de la referida intersección, dotando a las cuñas previstas de arcones iguales a los de la carretera A-124, respetando con las isletas el arcén de 1,50 m de anchura de dicha carretera, y dotando a los ramales de dicha intersección de los mayores radios de giro posibles y de sección, tanto transversal como de firmes, suficiente para los movimientos y tráfico esperados.

b) Todos los aspectos relativos al drenaje, señalización y balizamiento, y todos aquellos necesarios para la completa definición de la solución proyectada.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con fin de proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

7.400

Diputatuen Kontseiluak 2006ko azaroaren 21eko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.

- Foru Dekretua:

KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

- 73/2006 Foru Dekretua, azaroaren 21eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, "Álava Vive Deporte Fundazioa" (ALVIDE) eratzea onartzen da, baita haren estatutuak eta foru aldundiak bertan izango dituen ordezkariak ere. Araban, kirola sustatzea eta garatzea da fundazioaren helburua.

Anuncios

SECRETARÍA GENERAL

7.400

Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el 21 de noviembre de 2006.

- Decreto Foral:

DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

- Decreto Foral 73/2006, del Consejo de Diputados de 21 de noviembre, que aprueba la constitución de la "Fundación Álava Vive Deporte" (ALVIDE) para la promoción y desarrollo del deporte en Álava, sus Estatutos reguladores y los representantes de la Diputación en la misma.